

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/12/3 | 334

🌀	10 urte eskualdeko bidezidorretan
🌀	Durangoko azokan Tolosaldea zigilua
🌀	Alergia ala intolerantzia?
🌀	Abarlotz Olano
🌀	Usabalen 5. urteurrena eta Beotibarren 75.ena



Abenduak 3,  
Euskararen  
Nazioarteko Eguna





Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea  
 Orbegozo, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
 Banatzaileak: Olatz Garmendia,  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Nora Olano  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOIKK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO  
UDALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia: Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

1949an Eusko Ikaskuntzak lehenengoz sortutako Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko asmoz Galtzaundi Euskara Taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu data berezi hau omentzeko asmoz.

8-11. orrialdeak

Oihane Sarasolak (Ibarra, 1986) Gizarte Hezkuntza ikasi eta Donostian lan egiten du, babesturiko Gureak langunean, autontzat osagai elektronikoak egiten dituzten langile ezinduez arduratuz. Bestetik, Bergara aldera jo behar izaten du Emon taldeko kideekin bildu ahal izateko.

Elkarrizketa: Oihane Sarasola

16-18. orrialdeak

	Iritziaien leihoa: Joxe Agustin Arrieta eta Unai Igartua	4-5
	Normalizazioa: Jasone Mendizabal	6-7
	Eskualdeko albisteak: 10 urte eskualdeko bidezidorretan	12-13
	Eskualdeko albisteak: Durangoko azokan Tolosaldea zigilua	14-15
	Koxk!: Alergia ala intolerantzia?	19
	Kultura: Abarlotz Olano	20-21
	Kirol salta: Usabalen 5. urteurrena eta Beotibarren 75.ena	22-23

## Beste urtealdiaren atarian



Joxe Agustin Arrieta  
Irakaslea

4 Ez dakit zortea ala kasualitatea izan den hemen Tolosan eta Tolosaldean bizitzea, baina ez nago damaturik. Garrantzitsua da bat ohartzea, nola askok laguntzen dizuten bizitzaren alde argitsuan irauten.

Baikorra ala ezkorra, argia ala iluna, alaia ala goibela, zoriontasuna ala nahigabea...Hainbat proposamen jasotzen ditugu zoriontasun hori lortzeko, eroso eta alai bizitzeko giltza aurki dezagun. Baina denok ongi dakigu, ordea, proposamen guztiek ez dutela beren helburua lortzen. Jendeak ongi bizi nahi eta ezin asmatu. Hain zaila al da?

Era sinbolikoan eta metaforikoan adierazi nahi nuke egun hauetan hainbat bazterretan itzali biztu ari diren argi txiki horiek, etxean eta geure inguruan ditugun lagunen eta etxeko maiteen argiaren ezaugarria ere badirela, eta guztia ez dela itxurakeria, kontsumismoa eta jai ustelak.

Gabon atarian gaude. Ia urteko balantzea egiteko tenorean. Eta urteko martxa honetan ezin ahaztu hamaika boluntario, gure herrian eta herrietan ditugun bo-

luntario isil, langile eta prestuak, bai arlo batean zein bestean solidaritatezko argia eta hoztasunean berotasuna jartzen dakiten hainbat jende jator.

Ari naiz eguneroko bizitzan itzali biztu ari diren argi txikiez. Badakizu beste argi horiek, argi apalez dabiltzanak etxeko sukaldeetan eta sozietateetan, herriko taldeetan eta auzo langintzan Tolosaldea argitzen baitute beren ahaleginarekin, denbora eskaini eta ematearekin, hurbiltasunetik edo isileko lanetik.

Abendualdiak eta garaialdi honek beste animo bat ematen dizu. Guztia ez da itxurakeria. Tradizioa ez da bakarrik ohikeria hutsa. Badago eta badabil zerbait. Barrutik sortzen den animo hori opa dizut. Ez ahaztu albotik, gertutik, esaten dizuten aupahori. Maite zaituen batek ematen dizun musu hori. Seme-alabari begiratzeak sortzen dizun poz eder hori.

Bonbilla txikiz beteriko argia badugu bazterretan, baina baita argi txiki nirnikako solidaritatezko argiak...eta hemendik eta horien eskutik ahal dugu bidea egitea. Uste dut orduan zerbait berria etor daitekeela. Horixe opa dizut datorren 2011rako: bakezko, askatasunezko eta elkartasunezko urtea. Bestela, datorren urte hau "beste" urte bat izan daiteke, baina berria ez. Eta zoriontsua? Ba hori ere nekez!

Honekin batera komentatu nahi dizut janari-marka ezagun (Campofrío) baten iragarkiak harrিতuta utzi nauela. Telebistan ikusi dut eta "4 zentzumen" du izenburu. Guraso itsuei Zilarrezko Ezteietan opari harrigarria

eskaintzea erabaki duten seme-alaba batzuen historia (egiazkoa) kontatzen du.

Azahara eta Paskual neba-arrebak Granadan bizi dira. Hauen aita eta ama itsuak dira biak. Amak %70eko ikusteko ezgaitasuna du eta aita erabat itsua da. Gurasoen zilarrezko ezteiak hurrean zeudela eta, seme-alabek opari berezia "antolatzea" erabaki zuten.

Gurasoek ezin dutenez ikusi, seme-alabek haiek erabil ditzaketan lau zentzumenetarako "festibala" antolatu zuten. Orkestra sinfoniko batek Puccini-*Nessun Dorma* ariaz esnatu zituen; gero, esentzia-laborategi batera eta mendira eramane zizuten gurasoak, gaztaroko usainak gogora ekar zitzaten; beranduago aitaren jaioterrira joan ziren... honek ukimenaren bidez aspaldiko senideak eta auzokoak "ikus" zitzan; azkenik, Martin Berasategik prestatutako afari gozo eta eder batez bukatu zuten ospakizuna.

Historia hunkigarria da, oso atsegina. Telebistan laburtua agertzen da: 2 minutu, 30 segundo. Nahi izanez gero, youtubenera gertera osoa aurkituko duzu, 7 bat minutukoa. Baina, nire ustez, garrantzitsuena semeak azkenean dioena da: "gurasoek irakatsi ziguten modu bi daudela bizitzari aurre egiteko. Falta zaitzun guztiagatik penaz bizi zaitezke, bizitzak eman ez dizun zentzumenagatik kezaz, edo, bestela, daukazuna ahal duzun guztian aprobetxatuz".

Amaiera edo ondorio ona dela uste dut, eta hasiera egokia datorren urte berrirako.



## Euskararen eguna

Handik, Alegiako eskolara joan nintzen seigarren eta zazpigarren mailak egitera, Bi egun pasa orduko inoiz ahaztuko ez ditudan hitzak entzun nituen: “eske andereño hau hija-puta bat da!!!”. Ikarrie!! Andereño bat “hija puta”? Hori esatea ezinezkoa iruditzen zitzaidan, eta gutxiago andereño batez, niretzat jainkosak baitziren. Baño bueno, ezta hain grabea, bizitzan zehar gauzak ikasten joaten gara, eta gure txikitako ametsetatik esnatzan gabiltza egunero.

Orduantxe hamalau urterekin Ibarrara joan ginen bizitzera, eta baita berriro ikastolaz aldatu ere, eta hemen beste ohitura eta bizi-modu batzuk ezagutzen joan nintzen. Gure koadrila euskalduna den arren, gaztelerez dezente hitz egiten zen, eta noski, nik ordura arte euskaraz bakarrik hitz egiten nuen, gaztelerez jakin bai, baño juxtu juxtu. Ez pentsa erreza izan zenik, gaizki pasatzera ere iritsi nintzen, eta gaztelerez hitz egin baino lehen bi aldiz pentsatzera ere bai.

Lotsa pixka bat ere ematen zidan garai horretan, orain aldiz, (gaztelerez hobeto hitz egiten dudanean arren) aronago nire gaztelera baldarraz, eta ez dit inolako lotsarik ematen. Zergatik ba?? Beti bizi izan naiz euskaraz, eta gaztelania beharrezko dudanean bakarrik erabiltzen saiatzen naiz.

Abenduaren 3-an Euskararen Eguna da, ez dut uste

euskararen alde lan egiten dudanik, euskaraz bizi naiz eta kitto! Amorrazioa ematen dit euskaraz aurkitzen ditugun oztupoak ikustean, Euskal Herria zer baita, horixe da, euskararen herria, beraz euskaraz bizi ahal izateko bideak izan beharko genituzke. Gure ama hizkuntza honek, Euskal Herriko hizkuntza den honek derri gorrezkoa izan beharko luke, normalizatua.

Horretarako hizkuntzaren behar bat sortu behar da, guk euskara behar dugu, baina euskarak ere gu behar gaitu.

Ez nuen aukera hau galdu nahi, eta Mikel Laboa handiari omenalditxo egitea erabaki dut. 2008-ko abenduaren 1-ean hil zen gure artean hutsune handia utziz eta bigarren urtemuga da aurten. Ikaztegiatiko garaietatik hasi eta orain arte entzun dut bere musika, eta bizi guztian izango dut bere diskoaren bat edo beste kotoxan eta etxean. Ni neu ere gitarra bat hartzekotan ibili nintzen, berari ohore. Lasai, asmo erromantikoan bakarrik geratu zen, baina egunen batean...

Bere kantu bateko hitz batzuk ekarri nahi nituen gogorra, nola ez “Herria eta hizkuntza” kantuko estrofatxo bat.

“Anai-arrebak, entzun ene aho-otsa: izaite bat ez daike hezur hutsez osa; herria da gorputza, hizkuntza bihotza; bertzetik berextean bitarik bakotxa, izaite horrendako segurra hil hotza.”



Unai Igartua

Eneko Aritzaren lagunak taldeko kidea

Beasainen jaio, eta Ikaztegiatan egin nittun nire bizitzako lehen hamalau urteak. Nazional 1-a herri erditik pasatzen zen orduan, eta herriko bat baino gehiagok jasan zituen bertan izandako istripu gogorak, baño hala ere haurtzaro eta gaztaro politaskoa izan nuela ezin ukatu, niretzat herria bakarrik existitzen zen, eta bertan izaten nituen nire abenturak, Errotako mostruok, atzekaldeko jolasak, “poxkitox” lapurrerak, bizikletako kolpek, bote-boten, apaizari katekesia ez juteko alde egiten, gordeketan, pilotan, errekan...

# Jasone Mendizabal: “Euskal elkarte bizitza elikatzeko modu berriak behar ditugu”

Topaguneak eta Euskaldunon Elkarteen mugimendua osatzen duten 95 elkarteek, XXI. mendeko Euskaldunon Elkarteen Mugimenduaren Kongresua egitera doaz otsailaren 26an Bilbon. Azken hila beteotan, gogoeta prozesu parte-hartzaile baten baitan murgilduta, lanean ari dira mugimenduaren etorkizunera-ko lan-ildo eta funtzioak zeintzuk izango diren erabakitzeke asmoz.

**Ze asmorekin heldu diozue Kongresu hau antolatzeke erronkari?**

Herriz herri euskaraz bizi ahal izateke eragite lanean dabilzan 95 Euskaldunon Elkarte batzen ditu Topaguneak. Gertuko euskaldunak bildu, herrian eragiteke bideak landu eta euskaraz bizi ahal izateke espazio eta harreman sareak eraikitzen jardun dugu azken mende laurde-  
nean. Ibilbide ikaragarri aberasgarria izan da, kultur dinamika berriak sortzen, tokiko hedabideen lanketan, haur eta gazteen aisialdian eta beste hainbat esparrutan egindakoa.

Hala ere, elkarteen aldetik kezka orokor batzuk jaso ditugu. Elkarte bizitza elikatzeko modu berriak behar ditugu eta gure pentsamendu eta jarduna XXI. mendeko gizarte eredura egokitu. Euskaldunontzat etorkizun ilusionagarri bat transmititzeko zailtasunak ditugula jabe gara. Esate baterako, zertarako hitz egingo dut euskaraz, gazteleraz edota ingelesez aritu ahal bainaiz? Galdera honi eta beste hainbati erantzuteke diskurtso sendoa eraiki nahi dugu.


**Proposamen honek etorkizunerako lan-ildoak berrezartzeke asmoa duela diozue... Zertan da berritzailea Kongresuak proposatzen duena?**

Etorkizunari begirako desafio handiak proposatzen dira Kongresuaren baitan, lan ildo berriak irekitzea eskatzen dutenak: euskal hiztunak “armairutik irteteko” lagungarri diren dinamiketatik hasi, kultur dinamika herrikoi eta parte hartzaileetatik jarraitu eta eragiletza politikoraino helduz. Zenbait kasutan aspaldiko helburuak dira, bidean galdu eta berreskuratu nahi ditugunak: parte hartzea, saretze lana, sentsibilizazio eta akuilu lana... Erronka horiei aurre egiteke oinarri sendoa eta auto konfiantza lagun ditugu eta Kongresuaren bidez gure mugimenduaren barne kohe-  
sioan sakondu nahi dugu.

Euskaldunon elkarteak herri

eta eskualde mailan antolatuta daude eta jarduera guztiz autonomoa daukate. Behetik gorako antolamendua du Topaguneak eta aberastasun gisa daukagu ezaugarri hau. Era berean ezin dugu ahaztu herri bateko euskaldunen sarea beste herrietako euskaldunekin osatzen dela eta guztion artean euskal hiztunen komunitate bat osatzen dugula. Komunitate honi begira zer dauka gure mugimenduak esateke? 20.000 bazkideetik gora duen gure elkarte sareak, herrietako eragin bidez gainba al du euskaldun guztientzat interesgarria diren eragin bideak artikulatzerik? Baiekotan gaude eta galdera hauei erantzun zehatzak eman nahi dizkio Kongresuak.

**Nola irudikatzen duzue Kongresuaren eguna? Zer gertatuko da otsailaren 26an?**

Momentu honetan bazkideekin sukalde lanean murgilduta gaude eta urtarrila bitartean egingo da hausnarketeta nagusia elkartez elkarte. Hortaz, otsailekoa gogoeta prozesu sakon honen emaitza izango da. Azken bilkura aro berri bati heltzeko indar metaketa gisa irudikatzen dugu. Hartutako erabakiak berretsi eta bereziki ospatzeko eguna izango da. Euskaldunon elkarteen mugimenduaren inoizko bilkurarik handiena irudikatzen dugu etorkizunari ilusio berrituz begiratuko diona. 



**TOLOSALDEKO TOKIKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN GUTUNA**

Idati honen bidez, Tolosaldeko tokiko euskarazko komunikabideok (28 Kanala telebista, Tolosaldeko eta Leizalaldeko HITZA egunkaria, Tolarne irratia eta Galtzaundi aldizkaria) mezu hau helarazi nahi diegu Tolosaldeko udal, gizarte eragile, kultur talde eta oro har, eskualdeko biztanle guztiei:

Lehenik eta behin, eskualdeari eskaintzen diogun zerbitzua alperu nahiko genuke. Benetiki berlaro, gure eskualdean gertatzen den ororen berri emateko ardura diegu. Euskararen normalizazio bidean, gure herritarrei telebista, irati, egunkari, aldizkari eta internet bidez eta euskaraz, eskualdeko albiste guttien berri ematen diegu. Gainera, gertuko komunikabideak guretzat, eskualdeko eragileek ere, beren ekitaldien berri emateko gurgara jotzen dute geroz eta gehiago. Eskualdeko herritarren eta euskarazko tokiko komunikabideen arteko lotura handia da egun. Umuniketako interesen menpe lan egiten duten komunikazio talde boteretsuen aurrean, Tolosaldeak badu bere komunikazioa kudeatzeko aukera.

Tokiko euskarazko komunikabideen garapenean, herritar-kontsumitzaileak dira hauen etorkizuna bermatuko dutenak. Hala ere, erakunde publikoen babes ezinbesteko baldintza da; ekonomia-krisi gozomako testuingu honetan, harpidetza edota publikitateagatik sarritan lotzea inoz baino zalagarria da. Honegatik, estrategikoki jaten dugun Tolosaldeko tokiko euskarazko komunikabideen sektoreak aurrera jarraitu dezan, gure eskualdeko Udal guztiei deia egiten diegu, datoren urteetan ere diru laguntza bidez euskarazko tokiko hedabideak babesten jarri dezaten.

Tolosaldeko tokiko euskarazko komunikabideek, egun lau enpresa edo talde esberdinetan lan egiten badugu ere, aurrerantzean gure arteko sinergia-ondarrak biltzen hastekoak gara. Hala ere, zoken urte hauetan gure eskualdeko zenbait udaliek tokiko euskarazko komunikabide gutxiak babestu ez dituztenez, 2013ko eta aurrerantzeko aurrekontuetan Tolosaldeko tokiko euskarazko komunikabide gutxiak, hauek aurkeztutako eskaerakin eta beharrezko dituen beharrezko koherentes den diru laguntza gonde eta esleitu dezaten eskatzen diegu.

Jon Miranda

Jon Mujika

Igor Mujika

Jon Aldanondo

**Kultur ekitaldiak**

**Durangoko Azoka**  
Autobusa, Abenduak 4  
Irteera: goizeko 09.30ean, tren geltokitik  
Itzulera: 19.00etan Durangotik  
Izen ematea: Galtzaundin  
Prezioa: 12 € (barkideak 10 €)



**BENTA ALDEA**  
JATETXEA

TEL.: 943 654 079  
ANOETA  
-TOLOSA BIDEAN

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behea  
20400 Tolosa

**Irakurle taldea**

Abenduko tertulia:

Eguna: abenduak 16 osteguna

Ordua: 19:30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea (1. solairua)

Irakurri beharreko liburua:  
**"Fikzioaren izterrak"**  
Ur Apalategi  
han egongo da



**HALCON**  
BIDAIK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxes: 943 674 113



**errotatxo**  
**okindegia**

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038



Kontzertua, mahai-ingurua eta Eskerrak Zuri aipamen berezia



# Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

1949an Eusko Ikaskuntzak sortutako Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko asmoz Galtzaundi Euskara Taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu Tolosan.

Naiara Roldán de Aránguiz

8

Nazioarteko Euskararen Eguna azken urteotan ezagun egin den ospakizuna, egun ofiziala izendatu zuten 1995ean Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak. 2010.era itzulita Tolosa euskararen eszenatoki bihurtuko da; Galtzaundik hiru ekitaldi nagusi antolatu ditu abenduaren 2an, ostegunean eta 3an, ostiralean.

## Abenduak 2, osteguna

Tolosako Bonberenean Maddi Oihenart eta Juan txo Zeberioaren kontzertua eskainiko da, arratsaldeko 19.30ean. Abeslari zuberotarrak piano-jotzaile tolosarren laguntza izango du taula gainean kontzertu intimista honetan.

## Abenduak 3, ostirala

"4 belaunaldi, euskararekiko lau bizipen" mahai-ingurua

Tolosako Udaleko Batzar Aretoan ospatuko dira Galtzaundik antolatutako Euskararen Egunaren ekintzak. Arratsaldeko 19.00etan ekitaldiari hasiera emango zaio Tolosan euskarak duen eta izan duen egoerari erreferentzia eginez mahai-inguru batean. Bertan lau belaunaldiek bat egin eta Tolosako euskararen historia emozionalari erradiografia aterako diote.

"4 belaunaldi, euskararekiko lau bizipen" lemapean Ramon Labaien (Donostiako alkate, Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilaria); Iñaki Azaldegia (Tolosako Udaleko Euskara Tek-

nikaria); Elene Arandia (abeslaria) eta Imanol Irazustabarrena eta Iñaki Artola (ikasleak) hizlari izango dira. Tolosako euskarari buruzko ikuspegia 16 urtetik hasita 80 urteko begietara bitartean.

## Eskerrak zuri aipamen berezia

Mahai-inguruari jarraipena emateko asmoz Batzar Aretoan bertan lau omendu berezi egongo dira kirola, kultura, gizatasuna eta euskararen alorrean egindako lan isilagatik. Epaimahaiak 2010eko Eskerrak Zuri Aipamen Bereziaren hartzaileak egindako ibilbideagatik ondorengoak omenduko ditu: Ibarako Emakume Sokatira Taldea, Tolosaldea Sahararekin Elkartea eta Tolosako Buruhandi eta Erraldioen Kon-

partsa. Euskara alorrean egindako lan sakonagatik Ohorezko Aipamena Mattin Amundarain euskaltzaleari egokituko zaio.

## Kirola, Ibarako Emakume Sokatira Taldea

Kirol aipamena Ibarako Emakume Sokatira Taldeari emango zaio. Sortu berria den herri kirol taldeko partaide den Miriam Elorza sokatiralariari aipamenaz galdetu diogunean honakoa erantzun du: "egia esan sorpresaz hartu dugu, talde berria gara, iaz sortu zen taldea eta baita txapelketan hasi ere baina oso ondo, oso gustura hartu dugu aintzatespena". Gaur egun sokatiran emakumeak aritzea "arraroa" dela ere gaineratu du horregatik errekonozimendu hau garrantzitsua da. Iazko irailean





sortu zen taldea eta abenduan lehenengoz sokatira txapelketan parte hartu zuen. Hasierako urte honen balorazioari dagokionean gustura azaldu zen Miriam Elorza: "asko ikasi dugu, aberatsa izan da txapelketan parte hartu ahal izatea".

2010-11 denboraldiari begira 12 neskek osatzen dute taldea, lehenengo urteko jende dezente mantendu da eta baita jende berria gehitu ere. Hala ere, Miriam Elorzak ez du aukera galdu nahi izan irakurle goari sokatiran aritzeko gonbidapena luzatzeko, astegunetan 20.00etatik aurrera Ibarra Kiroldegian entrenatzen dutela jakinaraziz: "kirol agresiboa denaren pentsamendua desagertu behar da".

Gizatasuna, Tolosaldea Sahararekin Elkartea

Epaimahaiak gizatasun alorrean Tolosaldea Sahararekin Elkartea omentzea erabaki du eta baita elkarteak berria pozez hartu ere: "ez gaude ohitura sariak jasotzera, ilusioa egin digu". Tolosaldea Sahararekin elkarte aktiboa da oso; bi astez behin 6-8 lagun biltzeko ohitura du eta urte guztian garaitik garaiera ekintza ezberdinak antolatzen ditu. Gabonetan Laskorain Ikastolak antolatzen duen Merkatu Txikia, bertatik eskuratutakoaren erdia euren proiektuen gauzatzeko eskaintzen zaie. Aurtengoak emandakotik Lurralde Libera-

tutako Mijik herrian oinarritako hezkuntza eskola eraikiko dute. Jon Diez elkarteko bozeramaileak ez du aukera galdu nahi izan Tolosako ikastolari eskerrak emateko eskaintzen dien laguntzagatik. Proiektu hau datorren urtean gauzatzen hastea aurreikusirik dute. Jon Diezen hitzetan proiektu honek izaera berezia hartzen du, izan ere, kanpamenduetatik kanpo prestatzen duten lehen egitasmoa baita eta basamortuan oraindik orain mantentzen diren nomada familiei zuzendurik dago. Azken 3-4 urteotan Tolosaldea Sahararekin elkarkekideek proiektu ezberdinak gauzatu dituzte: 2 astez behin kanpamenduetan argitaratzen den egunkariari material informatikoa ahalbidetu zitzaion, gutxitu psikikoen eskolari sukaldeko materiala ahalbidetu diote eta gerrako zaurituen ospitaleari aire girotuko 18 ekipo lortu dizkiote ere.

Honetaz gain urtean zehar ere bestelako ekintzak antolatzen dituzte saharar kideek: otsailean elikagai bilketa, karabanaz eramateko; apirilean Saharako egoeraren berri emateko informazio jardunaldiak; udaran 7-11 urte bitarteko ume sahararrak Tolosara 2 hilabetez gerturatzeko kanpaina; azaroan salaketa manifestazioa...

Hemendik aurrerakoari begira Jon Diezen hitzetan Tolosaldea Sahararekin Elkartearen xederik garrantzitsuena, orain-

go egoera kontutan harturik, "gertatzen ari dena komunikabideetan zabaltzea izango da".

Kultura, Tolosako Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa

Gaur egungo Tolosako Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa 1995ean sortu zen, lehendik 1992tik erraldoi eta buruhandien inguruan talde bat lanean baziharduen ere. Erraldoi, buruhandi eta dultzaineroak kontutan harturik egun 35 pertsonak osatzen dute taldea, Iñaki Moyua, gidari dutela. Konpartsa sortzeko asmoarekin batera erraldoi irudi berezkoak, Tolosa herriarekin harremana zutenak, sortzeko ideia gauzatu zen. Iñaki Moyuak berak azaldutakoaren arabera "lehen zeuden irudiak, udalerrikoak, seriekoak ziren; bestelako herrietan ere berdinak zeuden". Orduan, betidanik irudiak egin eta dantzatzeko gustuko izandako pertsonak

bildu eta irudien zirriborroa ekiteari hasi ziren; 8 zirriborro egin, 4 gauzatu eta orain 6 pieza berri daude. Donmenjon Gonzalez de Andia, Erdi Aroko pertsonaia historikoaren, 'Gipuzkoako Errege' bezala ezagun izandakoaren inguruan sortuak.

Konpartsak euren irudiak Tolosako kaleetan barna errege desfilean, inauterietan eta eurentzat data handia den San Juan egunean ateratzen dituzte; "duela urte batzuk hau pentsa ezina zen, erraldioen kultura hondora zihuan", dio Moyuak.

Azken urteotan irudiak Tolosatik atera eta Ainhoan, Iruñean, Gasteizen... dantzatu ostean Eskerrak Zuri aipamena pozez hartu dute: "beti ere pozgarria da aintzatespena jasotzea; gazteentzat bultzada bat izango da, azken finean haiek dira konpartsa aurrera atera behar izango dutenak", amaitu du Moyuak. ©

# Mattin Amundarain "Euskararik gabe ez

Galtzaundiren 2010eko Eskerrak Zuri Oho-  
rezko Aipamenak Mattin Amundarain Tolosa  
izen abizenak ditu. Amezketakoa da jaiotzez.  
Lan kontuak medio, Arrasaten urte asko egin  
ditu. Egun, berriz, Tolosan bizi da. Euskararen  
zabalkundeari ordu asko eskaini dizkio: euska-  
ra irakasten, Arrasate Euskaldun Dezagun  
sortzen, Arrasateko ikastola bultza-  
tzen,... aritu izan da eta, egun ere,  
79 urterekin, Tolosako Mintzala-  
guna egitasmoko hiztunetako  
bat da. Galtzaundiko bazkidea  
ere bada.

Igor Mujika

Arrasatera bizitzera joan  
zinenean, euskararen alde-  
ko mugimenduan murgildu  
zinen.

Arrasatera joan nintzenean  
ez zen kezka handirik euska-  
rarekiko. Oso denbora gutxira  
zerbait sortu zen eta, Tolosal-  
dekoa nintzela eta, irakasle be-  
zala hartu ninduten. Mugimen-  
du hori, denbora batera, AEKn  
bihurtu zen. Irakasle lanetan  
aritzen zen lagun batek kez-  
ka handia zuen bere ikasleek  
kalean euskaraz ezin zutelako  
hitz egin. Euskaraz bakarrik  
hitz egingo zen txoko bat sor-  
tzearen beharraz,... hitz egiten  
zuen. Pentsamendu hori oina-

rri hartu eta AED Arrasate Eus-  
kaldun Dezagun sortu genuen.  
Horretarako, lehenik, gure  
ustetan euskararen inguruan  
pertsonarik esanguratsuenak  
zirenak bildu genituen. Batza-  
rren bat edo beste egin ostean,  
herri osoari egin genion deial-  
dia. Guk hazi txiki bat jarri bai-  
no ez genuen egin, eta, ikusten  
denez, hazi horrek lur ona to-  
patu zuen.

Zer aldatu da garai haietatik  
hona?

Euskararen aldeko giroa han-  
diagoa da orain. Kilometroeta-  
ra, Herri Urratsera,... jende asko  
joaten da. Egun horietan ere,



# dago Euskal Herririk”

ordea, erdera asko entzuten da.

Baloratzen al dugu gure hizkuntza?

Beraiena hemen ezartzea eta, gainera, gu antzutzea lortu dute. Norbaiti erderaz hitz bat entzutea nahikoa izaten dugu euskaldunok segituan erderara pasatzeko. Euskara ez dugu estimatzen, ez diogu duen balorea ematen. Euskal Herrian egun erderek duten adinako indarra balu euskarak, nazio-tasunaren seinalerik handiena izango litzateke. Eta, horregatik da behin eta berriro hemen eta han zapaldua, Euskal Herria izenari mamia ematen diolako.

Eta, euskaldunok euskararekiko jarrera hori zergatik dugula uste duzu?

Txiki txikitatik sartu digute. Euskara orain hasi da estimatzen. Erderaz ongi ez jakiteagatik euskaldunok asko sufritu behar izan dute ikastetxean, dela edozein gestio egiterakoan,... Horren guztiaren ondorioak ari gara jasaten orain.

Zer esanahi du zuretzako elebidun hitzak?

Ezinezkoa den zerbait da. Niri erdaldun bat etortzen bazait eta nik harekin hitz egin behar badut, ni naiz elebiduna baina hura ez da elebiduna. Denok ez bagara elebidunak ezinezkoa



da elebitasuna. Herri elebiduna izateko, guztiok bi hizkuntzak jakin beharko genituzke.

Zein hizkuntzatan jardun bakoitzak erabaki behar duela esaten denean,...

Bai, bai, bai,... bakoitzak erabaki baino jada mendean dagoenean. Dena hain zapaldua dutenean, orain bakoitzak egin dezala nahi duena. Euskal Herriak Euskal Herri izan behar badu, euskara jakitea obligazioa izan beharko dela uste dut.

Eta, nork edo nork biharko egunean Euskal Herria badugu baina euskara ahaztu egin zaigu esango balizu, zer erantzungo zenioke?

Hori ez da Euskal Herria. Izena emango diozue baina hori ez da Euskal Herria izango.

Euskarak zer nolako etorkizuna du?

Agintariek zer esan handia

dute. Orain bezalako agintariak baditugu eta euskaldunok ez bagara zutitzen, euskararen alde altxatzen, ez diot ikusten euskarari urte askorako etorkizunik. Urtebetean edo bian ez da galduko baina belaunaldi gutxi batzuetan baietz esango nuke. Euskararen aldeko mugimenduak, Kontseilua, euskara elkarteak,... ematen diote euskarari argia.

Eta, zeintzuk izan beharko lirake euskara elkarten funtzioak?

Herriarrak euskalduntzeaz gain, herri kontzientzia sortu behar dute. Euskara galduko ez denaren ziurtasunik ez dut. Euskararik ez badago ez dago Euskal Herririk. Euskal Herriak beste herriengandik kopiatu ezinezkoa den zerbait baldin badu hizkuntza da. Kontzientzia hori ere nolabait erein egin beharko lukete edo, gutxienez, horretan dabiltzanekin harreman bat izan beharko lukete.

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagirre  
**Gosariak eta meriendak**  
Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO**  
**ELEKTRIZITATEA**  
Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak  
Iurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**  
SEGUROS  
BILBAO  
Aholkularitza  
integrala  
Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Martin**  
**Eceizabarrena**  
Instalazio  
erreforma  
Konponketak  
Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK  
Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

2000. urteko abenduan jarri zen martxan Txolarre irratia

# 10 urte eskualdeko

Hamarkada bat. Asko edo gutxi izan daiteke, begiratzen den moduaren arabera. Horiek dira Txolarre irratiak martxan daramatzanak. Anoetako bere txokotik uhinak eskualdera zabaltzen hasi zenetik 10 urte bete dira abenduan.

Erredakzioa

Txolarre Irratian elkar zoriondu eta atzera begira jartzeko moduan dira. Urrun gelditu dira 2000. urteko lehen emanaldiak. Bidea ez da ordea, erraza izan. "Pronostiko guztien kontra iraun du irratiak 10 urtetan. Herritar askoren ahaleginari esker iritsi da urtemuga honetara. Umil baino harrotasunez diogu, duintasunez. Elkar zoriontzeko moduan gaude", azaldu dute Txolarre Irratiko talde eragileko kideek.

## Herritik sortutako hedabidea

Tolosaldean euskalgintzan zenbiltzan hainbat pertsonen proiektua izan zen irratia sortzea. "Eskualdeko euskaltzale eta herritarrek sortu zuten tresna, helburu argi batekin: euskararen komunitatea sendotu garatu eta trinkotzea", adierazi dute Txolarrekideek. Helburu eta mugen berri ere hasieratik argi izan dute euskarazko irratiaren. "Bagenekien bidezidoretik ibili beharko genuela. Bagenekien, minoritarioa izango zela gure irratia, txikia... handiago egiteko bokaziorik ere ez dugu izan inoiz. Txikiak, ordea, ez du ezdeusa esan nahi. Nor-

bera, kontziente denean bere tamainaz, bere egitekoaz, onartzen duenean non eta zertarako dagoen, jabetzen da bere eginbeharraren tamainaz". Eta euskara ipar orratz hartuta egin dute lan. "Helburu potolo horri erantzunez egin du Txolarrek lan hamar urtez. Ia etenik gabe, jarraikortasun batekin, ardur handiaz erantzun dio bere egitekoari, egindakoa asmatu edo ez".

Atzera begira jarrita, herritarrek eskertu nahi dituzte Txolarre irratiak. "Irratiaren bueltan urteotan lanean aritu garen ehundaka herritarrok egin dugu bidezidorra. Batzuk, lotsak gaudituz eta mikrofono aurrean jartzen ikasi behar izan dute; beste batzuk, atzeko lanetan jardun behar izan dute; eta bada, igeltsero, elektrizista eta antenista lanetan moldatu denik ere, eskualde honek bere euskarazko irratia izan dezan".

Eta bada baikortasun mezurik ere. "Uste dugu, gure xumean, Tolosaldeko euskararen komunitate hori trinkotzen lagundu dugula, aberastu dugula. Txolarrek harremanetan jarri ditu eskualdeko herritarrek





# o bidezidorretan

eta beste hainbat eragileren laguntzaz, hobetu du Tolosaldean euskarak orain hamar urte zuen posizioa. Euskarazko hedabideen panorama esaterako, orain aberatsagoa da. Berrito diogu, elkar zoriontzeko moduan gaude". Irratiko kideen arabera, "Txolarrerren ibilbideak berak erakusten du eskualdean badela euskararen aldeko potentziala".

## Jaia eta erronka

Aurrera begira eta orain artekoa ospatzeko lanetan ari dira aste hauetan Txolarren. Eskualdeko herritarrek abenduaren 11n Anoetan egingo den Txolarre egunera gonbidatu dituz-

iritzi dira, eta beraz, orain da unea zein bidezidorretatik jarraitu behar den erabakitzeko. Erabaki horren aurrean dago eskualdeko irratia, eta berarekin batera, eskualdeko gainontzeko euskarazko komunikabideak ere bidegurutze horren aurrean ikusten dituzte. "Eztabaidari ez diogu beldurrik izan behar, ezta aldaketari ere. Tolosaldeko euskaldun guztiok osatzen dugun komunitate horrek erabakiko du zein bide hartu behar duten euskarazko hedabideek, eskualdearen beharrak euskaraz asetzen, herritar euskaldunak lotzen eta haiengan eragiten jarrai dezaten, Txolarrrek hamar urteotan egin duen



te: "10. urteurreneko ekitaldian parte hartzera gonbidatzen ditugu guztiak. Indarrak har dituzagun eta hurrengo ikasturtean aurrera abiatuko den garai berria elkarrekin pentsa dezagun". Izan ere, ospakizunerako aitzakia izateaz gain, hamargarren urteurrenak mugarri izaera ere badu. Orain artean landutako bidezidorrak bidegurutzera

gisan". Euskarazko irratia egiten duten lagunek diote, "guztion ekarpen, borondate eta ahaleginari esker irratia urte guztioan landu duen ikuspegia eztabaidaren erdigunean jartzen badugu, ziur asmatuko dugula; Tolosaldeak izango dituela merezki dituen euskarazko hedabideak: biziak, eraginkorrak, emankorrak".



## Abenduak 11, Txolarre Eguna

Hamar urte hauetan Txolarrerren kabia izan den Anoeta herrian ospatuko du eskualdeko irratia bere hamargarren urtebetetzea. Egun osoko festa, Txolarre Irratiaren ibilbidearen isla izango da: eskualdeko herritarren eta eragileen ahaleginari esker iritsi da gaur arte, eta beraz, hamargarren urteurrena ere lankidetzan prestatu dute, irratia orain arte bizilagun izan dituen Anoetako Gazte Asanblada, Anoetako Udala eta bertako Kuku Elkarteekin. Irratiaren beste hainbat lagunek ere parte hartuko dute: Loatzo Musika Eskolak, edota Amaia Agirre bertsolariak besteak beste. Aipatutakoak zein aipatu gabekoak, esker onez gonbidatu nahi dituzte Txolarretik abenduaren 11ko jaira eskualdeko irratia bezainbat, entzuleak eta lagunak izango baitira egun horretako protagonistak.

## Egitaraua

- 12:30; Kalejira Loatzo Musika Eskolako musikariekin Txolarretik Anoetako Plazara.
- 14:00; Bertso bazkaria Kuku Elkartearen. Bertsolariak: Amaia Agirre eta Aitzol Barandiaran. Txartelak salgai Anoetako Buztina eta Itzuli tabernetan eta Txolarre Irratiaren egoitzan. Prezioa: 20 €.
- Bazkalosteko bertsoaldiaren ondoren trikipoteoa herrian zehar.
- 22:30; BERRI TXARRAK taldearen kontzertua Gaztetxean. Sarre-rak eskuragai egunean bertan edo aurretik Txolarre Irratiaren egoitzan.



# Durangoko az...

Datorren abenduaren 4an Landako Erakustazokak bere ateak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 45. edizioari zabaltzen dizkionean Tolosaldean sortutako artelan ugari bertan izango dira. Jarraian hauetariko batzuk jasotzen ditugu disko eta liburu artean galdu ez zaitezten.

Naiara Roldán de Aránguiz

## Liburuak

Alex, nire laguna

Mikel Gurrutxaga eta Maite Gurrutxaga (Pamiela)



Etxepare Saria  
Isabeli ez zaio axola Alex munstro bat izatea; izan ere, Alexek lagun egiten dio, entzun egiten dio eta ulertu egiten

du. Baina Alexen presentzia lausotuz joango da Isabelek beste adiskide batzuk izaten dituen heinean.

Alegiazko laguna da album honen gaia. Etxepare Sariaren IV. Edizioa irabazi zuen, eta horretarako kontuan hartu ziren liburuaren xarma, irudien kalitate estetikoak eta ipuinaren hizkera poetikoa.

Gaur orain da betiko

Karlos Linazasoro (Erein)



Musua eternoa da. Apenas irauten duen, eta hortxe nago berrir eskaka, orori ixkintxo eginda. Zureak dira eternoenak, kuttun, gau eta egun, edo

lorategiko zeruan. Zureak, noiz eta nola, beti, hegaka edo azpi-azpitik ezpainetara. Esan, eta hementxe nago, istantean, bapo-bapo begira, noiz jasoko dudan betikotasun hori, pott, hain eztiz paregabea. Zureak, eternoenak. Eta izan dadila laster.



451 zenbakidun kaskoa buruan, letoizko mangera-muturra ukabiletan, liburuak erretzea da bere lana, bere behar kuttuna. Izan ere, Montag

bizi den herrialdean debekatu-ta dago irakurtzea. Irakurtzeak pentsatzea dakarrelako eta pentsatzeak zorientasun eza. Eta zorientasua izatea derrigorrezkoa da.

Gizajendearen ahitzea

Pablo Sastre Forest (Elkar)

Sentimenduz beteriko espazioa da hiria; sentimendu guztiek hirian tokirik ba ote duten, ordea, zalantzan jartzekoa da. Gaur egungo hirian barrena garamatza Pablo Sastrek liburu honetan, pausoa astiro emanez. Sentimenduen espazioak arakatzan dituelarik, giza arimaren



aztarnei jarraitzen die, askotan ezabatu baldin badaude ere, eta hainbat galdera lutzaten: Zer sentitzen du lan egin behar duen jendeak? Non dago emakumeen indarra, gizonen kemena, begien distira? Zein harreman dago eskolaren eta otzantasunaren, irudi fabrikatuen eta minik ezaren, ospitaleetako osasungintzaren eta beldurraren artean?...

Fahrenheit 451

Ray Bradbury. Nagore Tolosa (itzulpena). (Txalaparta)

Liburu honetako protagonista, Guy Montag, suhiltzailea da.



Berastegi 1: hiritartzearen bidetik  
Berastegi 2: gatazkaren tenorean  
Berastegi 3: eraldakuntzaren gurpilean

Paulo Iztueta (Utriusque Vasconiae)

Berastegiren historiari buruz euskal idazle eta filologoak idatzitako trilogia. Herriko arkitektura, eliza, etxeak eta bestelako gaiak hartu ditu abiapuntu.



## Musika

Don inorez  
Bide ertzean.  
(Gaztelupeko Hotsak)

Dagoeneko hamabi urte igaro

ro dira taldea sortu zenetik eta hau zortzigarren diskoa da.

Bide Ertzeanen musikaren ezaugarri nagusiak mantentzen dira: kantuen egituren soiltza-

# Azokan Tolosaldea zigilua

sona, moldaketa dotorez janzteko kezka, melodiaren garrantzia hitzak zaintzeko ardura. Errepikapenean erori gabe giroak eta estiloa aldatu egiten dira kantu batetik bestera: country-pop dotorea, folk kutsuko pieza biluziak, vals-ak eta pop kantu nahastu egiten ditu soinu akustikoa elektrikoari gailenduz.



**Yakuzi** Gustavo Gallégok, Anartz Oñandiak, Aitor Monjek eta Gorka Molerok osatzen dute.

**Zuretzat** *gurekin...* Javi Atila y los unos

Hasiera batean, beren musika sortu eta festarako grina garatzen zuten lagun taldea zena, gaur egun, ikusleekin zuzeneko izerdiaz, inprobisazioaz eta gorputzen eta arimen elkartasunaz gozatzen duen lagun taldea izaten jarraitzen du. Zuzeneko kontzertu baten grabaketa omenaldia da hau.



**Era** Zea Mays

ERA, melodia, indarra eta emozioen uztarketa ezin hobe da. Oraingo honetan kantu zuzenen aldeko apustua egin du taldeak. Aurreko lanetan eraikitzen zituzten garapen harmoniko eta biziei muzinik egin gabe, kantu zuzenak aukeratu dituzte langai, ekaitzaren erdian lurra jotzen duen tximistaren eragin-garritasunarekin.



**Don inorez** Manent (Rundown-e)

Manent-ek harridura dakar bere lan berriaren aurkezpenarekin. "Barrutik", Durangoko azokan aurkeztuko du. Lan hau, asmo harroen aitortpena, ideia berrietaz irekia jendeari bereziki zuzendua dago. Barnerako bigarren aldian sakona eta estua da.



**Ren Fan** Ama Say

Ama Say esan eta esan ibilizen mendearen bukaeran. Beraien abestiak eta diskoak ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira denboraren bitartez musikazale eta musikari askorentzat. Ama esan eta esan ibilizen Euskararen mundura munduko musikak geureganatzen. Esan eta esan Euskal kulturaren beste kultura batzuk txertatzen. Ama gauza berriak esaten hasi ez zaigu, ba! Gauza berriak, abesti berriak, aire berriak.



**Hustukoixkiu** Alegiko Bertso Eskola

"Hustukoixkiu!" Alegiko Zazpi Astoren Gainean bertso-taldekoen gerrarako oihua da, eta izenburu horixe jarri diote egin berri duten diskoari ere. "Hustukoixkiu!" diskoaren argitalpenak "Zazpi astoren gainean" bertso-taldearen 5. urteurrenarekin eta "Txintxarri abesbatzaren" 50. urteurrenarekin bat egin du.



**Bitternes** 25th Coming Fire

Donostiatik datorren taldeak ez du albo batera uzten hardcore-arekiko fanatismoa. Hardcore azkar, zahar eta ona Karlos Osinaga "TXAP"en esku grabatutakoa Bonberenea estudioetan.



## Bonberenea Ekintzak

Bonberenea Ekintzak aurten nobedade batekin dator, bertan ekoiztutako lanak Durangon presente egoteaz gain 45. edizio honetan berezko stand-izango du autogestioa helburua duen tolosar elkarteak. Azokan ondorengo lanak topatu ahal izango dira:

**Ausardiaren garaia** Yakuzi

Yakuziren diska berria. Talde hau Durangaldean sortu zen, eta laukote hau ahotsik gabeko erritmoez baliatzen da musika egiteko, musika instrumentala,

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia


Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan eguncero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA

  
**kutxa**



Emon taldeko kantaria da. Taldeak *Piztu Herria* diskoa atera berri du

# Oihane Sarasola



## “Kantuaren aldarri eginaz”

Oihane Sarasolak (Ibarra, 1986) Gizarte Hezkuntza ikasi eta Donostian lan egiten du, babesturiko Gureak langunean, autoentzat osagai elektronikoak egiten dituzten langile ezinduez arduratuz. Bestetik, Bergara aldera jo behar izaten du Emon taldeko kideekin bildu ahal izateko. Gurasoen lan kontuak zirela medio zortzi urterekin Zegamara joan zen eta bertan bi urte egin zituen arren, Ibarrarekin lotzen du bere burua bete-betean. Azken aldi honetan bertan nahi haina ezin du egon, lana eta musika kontuak direla medio.

Felix Aiestaran





 Ez dugu entzule jakin bat bilatzen. 

Tolosako Hodeitruk abesbatzan aritu zen, Alurr Dantza Taldean ere kantari arituaz Ibarako ereserkiari ahotsa jarri zion 2002an eta duela lau urte Euskal Herriko Kantu Txapelketan bigarren postua lortu zuen. Bertan Emon taldeko kideak azaldu zitzaizkion bere ahotsa azaldu zitzaizkion bere ahotsa esanez. Ordu-danik, beraiekin ari da festa giroko doinu alaiak ska, rock edo beste doinuez jantziaz. Piztu Herria diskoa plaza desberdin, internet eta beraiek bilatutako bideetatik zabaltzea lortu dute.

#### Nola murgildu zinen kantagintzan?

Txikitatik etxean beti entzun izan ditut euskal kantak. Familiako afarietan kantari bukatzen genuen. Bi aldeko aitona kantuan aritzen ziren eta Belauntzakoa bertsoan ere bai. Tolosako Hodeitruk abesbatzan hasi nintzen hamabiren bat urterekin, baina estiloa ez nuelako gogokoa edo, utzi egin nuen. Alurr Dantza Taldean tarte kantatzen nuen eta bertan zegoen Jagoba Astiazaranek prestatuta 2006an Euskal Herriko Kantua Txapelketan parte hartu nuen. Anje Duhalderen abesti bat prestatu genuen, intonazioa, ahoskera landu genuen... parte hartu eta bigarren postua lortu nuen.

#### Zer nolako esperientzia izan zen?

Bakarlari modura nire lehen esperientzia izan zen. Hainbeste jenderen aurrean inoiz ez nuen abestu eta oso gaizki pasa nuen hasieran. Eszenatokia, mi-

krofonoa, ni bakarrik... Txapelketek gainean presio handia jartzen dizute, baina bestetik jende asko ezagutzen duzu eta azken finean, euskal kantua zabaltzea izan behar da helburua. Eszenarioan egoteko planta eta jende aurrean kantatzeko modua ikasi nuen bertan.

#### Iparraldean euskal kantagintzarako dagoen tradizioa ezagutzen al duzu?

Iparraldeko kantuak beti gustukoak izan ditut. Ibarren Erramun Martikorenarekin kantatzeko aukera izan nuen eta esperientzia oso polita izan zen. Bera artzaina denez antolatzaileek aurretik lanketa handia egin behar izan zuten berarekin, hitzordua lotzeko. Kontzertu bat zela eta Baigorri izan gara eta oso ongi zaindu gaituzte. Bertan lagunak ere badituzte eta ikustekoa da. Iparraldeko askok euskara ez jakin arren badakizkitez euskal kantak eta harrigarria da zenbat kantatzen duten.

#### Zergatik kantatzen da horren gutxi Hegoaldean?

Betiko euskal kantak ez dira entzuten euskal irratietan eta jendea zurrumbilo horretan harrapatuta dago. Jendeak lau edo bost euskal kanta ezagutzen ditu, baina ez du ezagutzen euskal kantutegi aberatsa. Ez du ezagutzen aukerarik ematen ez zaiolako. Etxetik ezagutu edo bestela jai duzu. Kanta afariak eta kantu jirak egiteko moda azaldu da, baina bertan kantu gutxi batzuk besterik ez dira lantzen.

#### Euskal kantagintza zabaltzeko asko dago egiteko...

Euskadi Irratiak ez du asko laguntzen eta are gutxiago



“Saioa behar den bezala ordainduaz balioetsi egin behar da bertako musika”.

Euskadi Gazteak. Euskadi Gaztean esan zigutenez ez gaituzte jartzen bertan sartzen ez garelako. Lotsagarria da, erakunde publikoak izanik denok aukera handiagoa izan behar genuke, betiko lauez gain. La Oreja de Van Gogh euskal taldeen kupoan sartzen dute... Hemengo taldea da, baina ez du euskaraz kantatzen. Hor dago koska.

#### Nola hasi zinen Emon taldean kantatzen?

Beti izan da nire ilusioa talde batean kantatzea. Euskal Herriko Kantu Txapelketako saioa bukatu ondoren, Emon taldeko kide batzuk etorri ziren, nire kantatzeko era gustatu zitzaizkion esanez. Probatu nuen, hasieratik oso harreman ona izan dugu eta bertan ari naiz duela lau urte, hasi nintzenetik.

Kanturako formazioa sakontzen jarraitzen duzu, ezta?

Ahotsean erregistro desberdinak formatzeko beharra izan dudanez, lantzeko tarte hartu dut. Ordiziako Musika Eskolan oso gustura ari naiz Amaliarekin. Musika desberdinak lantzen ditut eta kanturako arnasketak duen garrantziaz jabetu naiz.

#### Emon taldeak Bergara operazioa izanik erraza izan al da moldatzea?

Nik hara joan beharra daukat, noski. Orain Eibarren entsetzen dugu. Zortzi gara





"Euskadi Irratian erakunde publikoa izanik aukera handiagoa izan beharko genuke".

taldean bakoitzak bere lana eta ikasketak ditu, musikaz gain. Astean behin edo bitan biltzeko moldatzen gara. Denok helburu eta ilusio berak ditugu. Asko hitz egiten dugu eta azkenean adostasun batera iristen gara. Lagunak egin gara. Batzuk musika irakasleak dira, besteek solfeoa ikasten dute... Norbaitek proposamen bat egiten du eta musika tresna bakoitzaren ekarpena adosten dugu. Hitzak Aritz trikitaliak jartzen ditu gehienbat.

#### Zer da Emon?

Musika talde alai, bizi eta festazalea da, lasaiago entzuteko doinuak ere badituen arren. 2006. urte arte plaza taldea izan zen, baina orduan partaide asko aldatu eta orain den *Emon* taldea bihurtu zen. Ahalik eta jende gehiagorengana iritsi nahi dugu. Asko borrokatu behar da lekua egiteko. Gogorra da zure lanaz gain asteburu asko hartzen dizulako. Ordubeteko saiorako atzetik lan handia dago. Ulertzekoa da batzuek ezin dutela ordaindu eta eraba-

## Jendeak ez du ezagutzen euskal kantutegi aberatsa

kiko dugu joko dugun edo ez, baina saioa behar den bezala ordainduaz balioetsi egin behar da, bertako musika. Kanpoko talde indartsua ekartzeko ez dakit zenbat ordaintzeko prest egoten den jendea... Komunikabideek ere zer esan handia dute, Euskadi Gazteak bere formatuan ez garela sartzen esan zigun. Euskadi Irratian tokia egin digute, baina berdin dio, gure diskoa asko ari da zabal-tzen lan handia egin dugulako: gure web orria, *Facebook*, *Twitter*...

#### Zer eman diozue jendeari eta zer jaso duzue?

Guk musika ona ematen diogu (barrezka), zazpi musikari eta abeslariak gogotik landutako musika eskaintzen dugu. Indarra, alaitasuna eskaintzen dugu eta jendeak erantzun egin digu. Eszenariotik jende guztia dantzan ikusteak indarra ematen digu.

#### Folk mundutik ska mundura nola iritsi zarete?

Hasieran plaza taldea zen denetik joz; orain ska, reggae... eta rumba ere jo nahi dugu. Martxarako estilo desberdinak jotzen ditugu, baina beti ere oinarria ska izanik.

#### Non jotzen duzue gustuen?

Toki eta garai guztiek dute bere xarma. Arratsaldean edo gauean jo, berdin zaigu, entzule desberdina izango dugu.

Zarautzen jendetzaren aurrean edo Arabako herrirka batean agure eta gaztetxoekin batera gustura aritzen gara. Normalean gazteen aurrean aritzen gara. Ez dugu entzule jakin bat bilatzen.

#### Nolakoa izan zen *Piztu Herria* diskoaren grabazioa?

Gogorra, neketsua, izugarria eta oso ona izan zen grabazioa. Ander Barriusorekin Eibarko Legarre estudioetan grabatu genuen eta moldaketak Azkarateko Katarain estudioetan aritu ginen Anjelekin. Emaizta oso gustukoa izan da.

#### Nola definituko zenue diskoa?

Itzela da diskoa. Betagarriko Iñakiren kolaborazioa izan dugu, gero Zigor Lezeta DJ-a, Gorka Estanga bateria-jolea... erraztasunak besterik ez zizkiguten eman. Bergarako Txozna Batzordeak kantu bat eskatu zigun eta kantu horrek ematen dio izena diskoari. Jendeari erne egon beharraren mezua eman nahi diogu.

#### Zein erantzun jaso duzue?

Oso ona, uste genuena baino hobea. Jotzen ere nahikoa ari gara; aurten hogeita hamarren bat saio egin ditugu.

#### Zein harreman dituzue beste taldeekin?

Gure aldamenen daudenean oso ongi gaude, baina badira hor goian dauden batzuk, besteak beste laguntzeko bultzadarik emateko prest ez dauden gutxi batzuk. Talde gazte asko dago, baina emanaldirik gabe ezin da aurrera egin. Horretan, Bonbere-nearen lana aipatu beharra dago. Leku gutxi dago jotzeko.



**Amaia Etxetxipia**  
Nutrizio aholkularia

Alergologoek diotenez, janari-alergien intzidentzia gero eta handiagoa da, bai helduengan eta bai umeengan ere. Gaur saiatuko gara gai honi buruz gauzatxo batzuk argitzen.

**Koxk!**

## Alergia ala intolerantzia?

Alergiak gero eta herritar gehiagori eragiten die. Erreakzio horien erantzuleak, janariak edo elikagaiak izan daitezke, baina baita ere, beraiei erasten zaizkien ongailu, koloragari eta kontserbatzaileak ere. Izan ere, elikagai batzuetan substantzia alergenokoak badaude. Janari-alergia eta intolerantziak, aurrez ohartarazi gabe agertzen dira. Askotan, alergia eta intolerantzia kasuak nahastu egiten ditugu, baina beraien arteko desberdintasuna garbia da: alergia gertatzen denean, gure sistema immunitarioak erreakzioa sortarazten du; intolerantzia dagoenean ordea, ez. Pertsona baten immunitate-sistemak substantzia jakin baten aurrean (kasu honetan janari baten aurrean) "ezohizko modu batean" erreakzionatzen denean, antigorputzak sortzen ditu gure organismoa babesteko intentzioarekin, eta orduan, alergia bat agertzen da. Alergia honek ematen dituen sintomak

oso arinak edo oso larriak izan daitezke: gonbitoak, arnasketa arazoak, azaleko gaixotasunak etab. Gehienetan, alergia sintomak janaria kontsumitu eta berehala agertzen dira. Badi-rudi, janariaren eta sintomen arteko erlazioa ezartzea erreza izan behar duela baina errealtatean gauzak ez dira hain argi azaltzen. Beti, edozein susmoaren aurrean, espezialistarengana jo behar dugu, medikuak diagnostiko zehatzagoa egingo baitu.

Honelako kasu baten aurrean, komenigarria da kontutan izatea ze janari motak hartu ditugun sintoma alergiko horiek azaldu aurretik. Eta zer gertatzen da haurrekin? Urtebete azpiko haurretan batez ere, kontutan eduki behar dugu, sistema immunologikoa ez dagoela erabat heldua; bere elikaduran elikagai berriak pixkanaka sartzen dira, eta zer lortzen da honekin? Ba haurren gor-

putzak janariaren aurrean modu desegokian ez erreakzionatzen laguntzen du. Eta erreakzioaren bat egongo balitz, errazago jakin ahal izango dugu ze janari mota izan den erantzulea.

Intolerantzien kasuan, elikagaia digestio-sistemarekin kontaktuan jartzean sortzen da arazoa, sistema horrek onartzen ez duelarik. Honen ondorioz, gonbito edo beherakoa azaldu daitezke, eta ez du inolako erlaziorik immunitate-prozesuarekin. Ezagunena, esnearekiko intolerantzia izan arren, posible da ere arrautzak ez onartzea.

Prozesu hauek ulertzeko, kontutan eduki behar dugu, alergia sortzen duena, ez dela produktu bera, baizik eta bere osagaiaren bat, adibidez proteina bat. Eta kasu batzuetan gerta daiteke, proteina horrek, elikagaia gordinik dagoenean kalte egitea, baina prestatzerakoan eta berotzean ordea kal-

terik ez egitea (proteina horrek desnaturalizazio prozesu bat jasaten duelako). Ikusten dugunez, faktore desberdinak eragin dezakete alergia eta intolerantzia prozesu hauen inguruan. Dena den, arazo hauen jatorria detektatzen denean, dietaren bitarteko tratamendua da eraginkorrena, hau da, alergia sortarazten duen elikagaia ez hartzea. Gerta daiteke ere, urte batzuk pasata sistema immunologikoa normalizatzea eta hasiera batean alergia sortzen zuen elikagaia azkenean onartzea. Bukatzeko, hona hemen elikagai taldetxo bat, ohikoak diren alergia erantzuleak: garia, behi-esnea, arrautza, fruitu lehorrak, arraina eta itsaskiak, soja eta fruta batzuk (adibidez, kiwia, melokotoia eta marrubia).



# Abarlotz Olano: “Abestea: afizio, ofizio eta pertsekuzio”

Abarlotz Olanok lehen diskoa kale-  
ratu du, “Antilla” izenburupean. Lan  
diskografiko honek 12 abesti jasoz-  
tzen ditu, Mixel Ducaurekin bate-  
ra konposatu eta ekoiztutakoak.

Naiara Roldán de Aránguiz

10 urte musika mun-  
duan murgildurik eta  
honako hau da zure  
lehen lana. Pozgar-  
ria kalean ikustea?

pixkana lana komunikazio alor  
horietan egotea poza ematen  
du; azken finean, abeslari ba-  
tentzat helburu nagusietako  
bat hori baita.

Abestea, afizio ofizio bilakatu al  
duzu?

Afizio, ofizio eta pertsekuzio.  
Azkenean obsesio ere bada.  
Egunero gitarra hartu, abestu  
eta konposatzea behar dut. Go-  
rabeherak izaten dira, egunero  
ez dira berdinak izaten, bizitzako  
garai ezberdinak. Askotan  
era guztietako gauzak gerta-  
tzen dira eta hor jarraitzen dut  
nire musikarekin.

Jende aurrean abesteak zer no-  
lako garrantzia hartzen du?

Nik uste erregalio dela, esan  
daiteke Jaungoikoaren oparia  
dela, gauzarik ederrena. Konpo-  
satutako zerbait jende aurrera  
eramateko, gustatu eta sentitu  
behar da, sentimendua azalera-  
tu eta jendeari helaraztea.

Diskoetxe ezagunetatik at bu-  
ruru duzu grabaketa eta pro-

dukzioa. Produktore lanetan  
zu aritu zara, zergatik honela  
planteatu?

Nik produzitu dut, gero dis-  
koetxeekin ibili naiz, Elkar-era  
joan eta haiek egin dute za-  
balketa. Nire lana da, nik egin  
dut behetik hasi goi-goraino.  
Mixel Ducau, zeruko jaun onak,  
lagunduta. Aita-emeak bezala  
aritu gara. Azkenean, lan honek  
eman didan baloraziorik onena  
da, Mixelekin bezala, bestelako  
musikariekin ere, komunikatze-  
ko aukera eskaintzea da. Sen-  
timendu hori oso aberatsa da,  
aberastasunik handiena.

Zaila izan al da, lan asko al dago  
disko bat kaleratze aurretik?


Ez da zaila. Gogoia egonez  
gero bera bakarrik ateratzen  
da; baina gero, musika aldetik,  
detalle asko daude. Detaile ho-  
riek guztiak ez dira errazak izat-  
en, ez dira bi egunetan egiten  
diren gauzak. Gustura arituz  
gero, pixkanaka-pixkanaka au-  
rrera egiteko aukera badago.

Zer adierazi nahi duzu eginda-  
ko lan honekin, kantautoreen  
tradizio poetikotik gertu koka-  
tzen duzu zure burua.

Niri asko gustatzen zait kan-  
tautore moduan ibiltzea; armo-  
nikarekin eta gitarrarekin soilik  
abestea. Oso egiazkoa dela  
uste dut. Nire abestiak kanta-  
tzea. Askotan ez da behar talde

Txiki-txikitik Xapre osa-  
barekin, bera soinu-jotzailea  
da, asko ibilia naiz, bai iparral-  
dera, hemen hegoaldean...  
Musikako grina berak sortu  
zidan; hona eta hara ibili nau,  
alderdi guztietan... Horrela  
sortu da lana; hainbeste iturri  
horietatik edaten eta edaten,  
hainbeste musikari horietatik  
ikasten. Gitarra akustika bate-  
kin hasi nintzen, hortik datoz  
nire kantak. Pixkanaka sortu-  
tako kantak dira, lan eginda  
sortutakoak. Bizitzan izan di-  
tudan lagun eta baita etorri  
diren sentimenduak abestu  
ditut.

Diskoa Durangon egongo  
da. Poz handia da. Pixkana-





handi bat, gauza simple bate-  
tik asko atera daiteke. Sinplea,  
soila.

**Kantatzeko eran, iparraldeko  
kantautoreen kutxua nabari  
zaizu.**

Bai, Mixel Ducau hortik dabil  
eta txiki-txikitatik ere hantxe  
ibilu naizenez, kutxu bat izatea  
posible da.

**Ahotsa jartzeaz gain, gitarra eta  
armonika ere zureak dira. Baina  
zer nolako laguntza izan duzu  
bestelako musikarien aldetik?**

Nirekin lehendik Fredi Pelaez  
ibilu da, teknikari bezala eta dis-  
koan ere hammond organoa,  
teklatua eta esku soina dagoz-  
kio. Joxean Floresek bateria sar-  
tu du, Igor Oiarbide tolosarrak  
baxua. Produktzioan, nirekin ba-  
tera Mixel Ducau aritu da, eta  
gitarra akustikoa, elektrikoa, al-  
boka eta saxoa ere jarri ditu; Ca-  
roline Philipsek, bere emazteak,  
ipar-amerikarra, ahotsa eta  
zarrabetea, azken hau oso an-  
tzinako instrumentua dena. Ar-  
kaitz Minerrek arrabita; Amaiur  
Karabilejak kontrabaxua; Urbi  
Artolak, drobo amerikarra eta  
lñigo Egiak perkusioa eta pan-  
deretak. Victor Lezamak, nika-  
raguarrak, nire lagun handiak,  
konposaketa eta moldaketak  
egin ditu, egunerokotasunean  
lan handia burutuz; musikari  
baten lanik handiena hori da,  
egunero egiten den hori segi-  
tzea, eskua botatzen didan la-  
guna bera da, lagun konplizea.

**Gaietan euskal kultura eta na-  
tura erroturik daudela antze-  
man daiteke baina bestelakoak  
ere jorratzen dira 12 abesti ho-  
rietan: eskaleak, immigranteak,  
publikoa, lagun-galdua, ema-  
kumea...**

Niretzat natura izugarria da,

gustatzen zait eta berak eraku-  
tsi dit emankorra izaten. Bizit-  
zako altxorrik handiena, balio  
handikoa, sentimendua sor-  
taraztea da. Sentimenduetan  
dago baliorik handiena, emate  
horretan naturak asko daki hor-  
rretaz. Ikasteko baliagarria da.  
Hori da natura niretzat.

Diskoa abere Antillari eskai-  
nia da, asko botatzen dut fal-  
tan. Berari eskaini diot 'Antilla'  
izeneko abestia.

Bestelako gai bat emaku-  
meena da. Emakumeak oso be-  
reziak dira, ni gizonezkoa izanik  
emakumeak apartak dira, zer-  
bait estraordinarioa. Ez dago  
deszifratzerik, bestela erotuko  
nintzateke.

**Zer nolako garrantzia du abes-  
lari batentzat familia sortzailea  
izatea (osaba Xapre trikitilaria;  
Maialen Olano, arropa, moda  
-diseinatzaile eta idazlea...)**

Arrebak asko laguntzen dit,  
asko balio du, oso azkarra da.  
Ni ez naiz horren azkarra. Ema-  
kumeek badute bestelako pus-  
ka bat. Elkar eragina badugu,  
elkar laguntzen diogu, elkar  
babesten dugu. Askotan letra-  
tan laguntzen dit. Lanak nik  
amaitzen ditut, azkeneko sen-  
tentzia nik ematen dut, baina  
erdibidean hor egoten da eta  
garrantzitsua da. Askotan berak  
bezala milaka jendek lagundu  
dezake, hori da inportanteena.

**Abesti bat sortzeko garaian  
zer nolako prozesua eramaten  
duzu aurrera?**

Inspirazioa zure bizitzan pa-  
satzen zaizkizun momentu es-  
pezifikorietan sortzen diren  
erreakzio horietatik sortzen da;  
hori komunikatzeko abestia  
sortzen da. Ezin da aldeztu aurre-  
tik esan zertaz joko duzun, bizi  
izan duzunik ateratzen da; es-

kale bati, edo joan zaizun lagu-  
nari eta harekin bizi izandako  
txikitako laguntasunari...

Sentimendua da, sentitzen  
duzun gai horri letra bat edo  
musika erantzten zaio. Inpor-  
tanteena sentimendua da.  
Bizitzan gertatutakoak eragin  
dizuna; bihotza ukitu dizun,  
gorrotoa sentiarazi dizun edo  
poza eman dizun. Lehendabi-  
zikoa hori da. Gero bera ate-  
ratzen da, musika edo letra.  
Batuetan musika, melodia  
lehendabizi etorriko zaizu eta  
besteetan letra. Gero biak ez-  
kondu behar dira.

**Lehen lan hau ezagutarazten  
ari zara baina hurrengo lanean  
pentsatzen hasita al zaude?**

Bai horretan gaude buru  
belarri, lana ezagutarazten.  
Kontzertuak hasi zaizkit. Pres-  
tatzen ari naiz, moldatu beha-  
rreko detaile asko daude. Da-  
goeneko Elkar dendetan topa  
daiteke diskoa, eta bestelako  
liburu-dendatan.

Hurrengo lanari begira...  
Lehenengo disko honek lanik  
gehiena eman dit, baina ba-  
dauzkat 10-12 abesti hurren-  
goari begira. Kanta batekin,  
disko batekin hasi eta nahi  
gabe sentimendu berri horie-  
tatik beste abesti batzuk ate-  
ratzen dira. Materiala badago.  
Pixkana joango naiz bakoitza  
bere tokian jartzen. Bigarrena  
errazagoa izango dela uste  
dut.

Lan berriak beste soinu bat  
izatea nahiko nuke, rock&ro-  
llagoa izatea nahi dut. Hasie-  
rakoak nahiko folka da, gitarra  
akustikoa da gehien entzuten  
dena. Hurrengo mugituagoa  
izatea nahi dut. Estilo aldetik  
kolore ezberdinak ezarriz. Al-  
daketa egitea oso aberasgarria  
da.

**ALDATZ  
Kristaldegia**

Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispiluak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-ixturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

**Saldias Miguel**

**CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erreireoak  
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)

**Tolosa Bit**  
Informazioa Zertifikatua

Ordezkatuak eta konpandak  
Egilea eta partekatzailea  
Materiazkoak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
[tolosabit@facilnet.net](mailto:tolosabit@facilnet.net)  
[www.tolosabit.es](http://www.tolosabit.es)



hondakin =  
ongizate +

Tolosako kiroldegia eta frontoia, berriak zaharrera

# Usabalen 5. urteurrena eta

Ospakizun garaia Tolosako kirol-instalazioentzat; Usabal kiroldegiari bere 5. urteurrena ohoratzeko beta heldu zaionean Beotibarrek ordea hamaboskoitza omenduko du, frontoiaren 75. urteurrena baita.

Naiara Roldán de Aránguiz

## Usabal Kiroldegia

Usabal Kiroldegiak bere atak lehenengoz zabaldu zituenetik 5 urte igaro dira dagoeneko. Kanpoaldean kokaturiko igerileku, berdegune, egurrezko terraza, solarium artifiziala, liburutegia, futbol zelaia eta barnealdeko igerilekuak, sauna, lurrin bainu-gela, terma, aska ur hotzarekin, kantxa, tatamiak, rokrodomo eta boulderrak, gimnasioak, fitnessa, squash, padela, arku-tiroa... kontaezinak dira bertako gune eta praktika daitezkeen kirolak.

Tolosarrak azkar ohitu dira Usabal kiroldegiak eskaintzen dituen zerbitzuetara, Tolosaz kanpoko Tolosaldeko herritarrek ordea momentu honetan mugatuta dute bazkide izatea, Usabal kiroldegiko arduradunek jakinarazten duten moduan "abonatu gehiegi dagoenez, Tolosan erroldatuta daudenen soilik egin dezakete zuzenean abonua eta bertan erroldatuta ez daudenen ordea, itxaron zerrendan eman dezakete izena".

Ospakizunaren ekitaldi moduan sentsibilizazio kanpaina martxan jarri da; hau, azaroaren 30ean hasi eta urtarrilaren 6ra bitartean luzatuko da. Kanpainak gainera saria jasotzeko au-

keru luzatuko du; 10 bizikleta zozketatuko dira, 5 kanpainan parte hartzen dutenen artean eta beste 5 kiroldegiko erabiltzaileen artean, "kiroldegira joateko garraio osasuntsua erabil dadin bultzatzeko".

Sentsibilizazio kanpainak ekintza ezberdinak hartuko ditu bere gain Usabal Kiroldegian bertan; alde batetik, Tolosaldeko Mankomunitateak "Hondakin-ongizate+" erakusketa ikusgai izango du eta Kirolzer enpresak abenduaren 27tik 31ra kirol-gymkana martxan jartzeaz gain eguberrietako zuhaitza birziklatutako materialaz dekoratuko du.

## Hondakin-ongizate+

Erakusketa honen bitartez hondakin gutxiago sortzera bideratutako ekintzak aurkeztuko dira. Tranpantojo batek, hau da, lurreko irudi anamorfiko batek, literalki amildegi baten ertzean kokatuko ditu bisitariak: euren oinetan Oria ibaia Tolosako Tingladutik pasatzerakoan, zaborrez estalita ikusiko dute. Kartel batek amildegi horretan ez erortzeko ordeko bidea aurkeztuko du: ur zirkuituak (iturriko ura, gal ezin den plazera), diseinuzko tratamenduak (ekodiseinua),



Beotibar  
75. urteurrena

# a Beotibarren 75.ena

kontrasteak (soberan hemen, faltan han), terapia miragarriak (konpost), berpiztua (murriztu, konpondu, berrerabili), hondakinterapia (hobe ez zikintzea) eta pentsatu egin aurretik.

## Kirol gymkana

Abenduaren 27, 29 eta 30ean goizeko 11.00etan eta abenduaren 28 eta 30ean arratsaldeko 17.00tan.

5 lagunek osatu beharko dituzte taldeak, bat gutxienez heldua dela ziurtatuz. Jarduera dinamikoa, hondakin murrizketaren inguruko probak ebatzi beharko dira; 6 kirol proba orotara izanik. Zirkuitua denbora gutxienean eta hobekien burutzen duenak irabaziko du, probak bat etorriko dira 'Hondakin-ongizate + 'erakusketako gaiekin.

## Beotibar pilotalekua

Tolosa Pilotaren hiriburua bihurtuko da abenduaren 3tik 8rako zubian. Beotibarren 75. urteurrena ospatzeko asmoz sei egunetan zehar pilota protagonista bilakatuko da frontoi historiko honetan. Tolosako kirol arduradunen esanetan ospakizun xumea egitea helburu dute 1.220 lagunentzako edukiera duen eszenatoki honetan,

tartean frontoiarekin berarekin harremana izandako pertsoneri erreferentzia eginez.

Omenduak izango diren protagonistetako batzuk jarraian zerrendaturik: Pepe Mendizabal (Beotibarreko lehen kudeatzaile taldeko kidea), Elias Villar (markagailuan eta arbitroa), Miguel Arrate (pilota txapelketa antolatzailea urte askotan), Antonio Longaron (kronista), Urdiña Txiki (pala txapelketa), Peña Union (4 t'erdiko txapelketa), Aurrera (pilota txapelketa), San Esteban (pilota txapelketa), Jose I. Elola (puntista eta eskolaren sortzaile eta laguntzaile azken hogeitaretan).

Hauetaz gain ere Ander Letamendia (sendagilea, pilotariaren eskuaren ikertzaile), Sacramentino (angelusa), Tomas Araniguria (epailea), Manuel Agirre (kafetegiko nagusia urte askotan), Mainer Mendizabal (emakume pilotari proiektuaren bultzatzailea) eta Anizeto Lazkano (pilotari eta urte askotan irakasle eta laguntzaile) omenduak izango dira.

Ospakizunekitaldia ostiralean, abenduaren 3an hasiera izango du 19.30ean hasita dohaineko infantil, kadete eta jubenilen esku eta zesta-punta partiduekin. Larunbatean goizean, 4an,

DV final-erdiak jokatuko dira eta arratsaldean ordea profesionalen partidua izango da ikusgai. Norgehiagokak aurrez aurre jarriko ditu ondorengo bikoteak: Apezetxea-L. Galarza vs. Rico IV -Peñagarikano; Titin III-Pascual vs. Olaizola II-Beloki eta Cabreri-zo II-Merino vs. Olaetxea-Argote.

Igande goizean prebenjamin, benjamin eta alebinen txanda izango da, eskuz zein zesta-puntan. Astelehen arratsaldean erremontista eta zesta-puntari profesionalak errelebo hartuko diete hasiberriei.

Asteartea abenduaren 7an nagusien eguna izango da, 19.30ean hasita esku zein zesta-punta partidua jokatuco dituzte. Asteazken goizean emakumeek euren trebezia erakutsi beharko dute, emakume-pilotarien txanda izango da paletan eta.

Ospakizunei amaiera emateko abenduaren 8an, asteazkenean arratsaldean eskuko partidua izateaz gain omenaldien unea ere iritsiko da. Profesionalen lehia Olazabal-Merino vs. Lemuno-Albisu eta Xala-Zubieta vs. Bengoetxea VI-Beginok eskainiko dute, Beotibarren 75. urteurrenaren ospakizunari amaiera emanaz.



**Juan Larrazpu**  
eraikuntzak, s.l.

• Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esirukturetan adituak.

• Etxeen berrikuntzak:  
- Fatxadak - Teilatua - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966  
Jon Arruti (Orio)



**Anizeto**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 Tolosa

shanti  
kirolak

Rondilla, 11 bis  
Tel.: 943 674 074  
Tolosa

# Abenduaren 3tik 16ra bitarteko hitzorduak

## irakurri entzun Ikusi

### Fucking artists Xabier Montoia



Hamar ipuin batzen dituen liburu hau ez da berez bilduma tematiko bat, Xabier Montoia hainbat gai, garai eta lekutan girotu dituen istorioak baizik: Jaurlaritzan sartu berri den emakume batek bizkartzainarekin izandako gorabeherak, futbol profesionalean arrakasta izatearekin amets egiten duten gazte batzuen historia, biak langabezia geratzen diren bikote gazte batek etxea ez galtzeko asmatu behar dutena...

### Split 77 Split 77



Bilboko taldeak hirugarren disko honekin estetika musikal berritzaile bezain propio baten jabe dela erakutsi du. Spliten doinu berritzaileak ez dira inportaziozko musika hutsa, eskal hirian sorturiko modernitatearen doinuak baizik.

### Ttaup, Ttaup! Arraun kolpeka Eneko Dorronsoro

Zumaia, kostaldeko herria. 2007ko negua arraun elkartean. Traineru denboraldia udan jokatzeko da, baina prestaketak hasiak dira dagoeneko. Entrenamendu gogorak, konpetentzia, deskarteak. Guztiak traineru berean. Hamahiru mutil, eta beraien asmoak, zalan-tzak, ilusioa. Denboraren distantziatik atzera begira, traineruak itsasoan utzitako arrastoa da dokumental hau. 2007ko denboraldi hartan Zumaiaiko arraunlariekin bizitakoa.



## Titirijai 2010

Azaroaren 27tik abenduaren 5era bitartean  
Azaroaren 29an, Tolosako Kultur Etxean, 10.30 eta 15.00tan Bihar Txotxongilo Taldearen Bapatean...Txotxongilo pilo.  
Azaroaren 30ean, Tolosako Kultur Etxean, 10.30 eta 15.00tan Behi Bista Taldearen Paperezko istorioak.

## Antzerkia

Linea(s) de Horizonte. Theatre du Lutib (Fratzia)  
Abenduaren 6an, 18.00etan, Topic-en. Pertsonaia bat idazten, marrazten, sortzen ari da intimitatean. Hortzmuga ari da marrazten, luzatzen eta luzatzen ari den hortzmuga, azkenean bizitza hartzen du eta hitz bat sortzen du, esaldi bat, istorio bat...

Denbora errealean garatzen den idazketa eta paper istorioa da. Pertsonaiak lehenengo pertsonaiaren ekimen sortzaileak bultzatuta doaz aurrera, bideo irudiek eta idazketak ematen diete presentzia. Errealaren eta irudikatua arteko joan-etorri bat da.

La leyenda del conejo volador. Compañía Bastian/Puche (Italia)  
Abenduaren 7an, 18.00etan, Topic-en. "Nire aitona untxi hegalaria zen eta Hungriako Zirko Nazionalen egiten zuen lan. Haidean mantentze lane-tako txapelduna zen, gainera. Egun batez, ordea, jaurtiki eta ia ez zen itzuli. 1959ko uda zen

eta lurrera nahastuta itzuli zen, elur maluten artean: uda izan eta elurra ari zuen..."

Pinocho. Libertablas (Argentina)  
Abenduaren 8an, 18.00etan, Topic-en. Gepetto arotzaren lan eta maitasunari esker bizidun bihurtzen den egurrezko panpinaren ipuina. Libertablas konpainiaren bertsioan panpina aktore ematen duten aktoreekin nahastu da, abenturaz betetako produkzio batean. Ez dira suspentsea eta umorea faltako baina emozioa eta sarkotasuna dira komunikatzeko funtsezko elementuak.

## Txuleta- festa

Txuleta-erretzaile onenek txuleta erreko dituzte, erretegitako menu tradizionala jateko aukera izango da.  
Afaria: abenduaren 4 eta 7an.  
Bazkaria: abenduaren 5, 6 eta 8an.

## Dantza

Abenduaren 10ean, 22.00etan, Leidorren. Oinazez, Alurr Dantza Taldearen estreinaldia.  
Zaila da aurrera egitea, begiak itxita, aurrean zer aurkituko dugun jakin gabe  
Zaila da aurrera egitea, probatzea, saiatzea, ezagutzea, berri-tzea, atzera begiratu gabe  
Zaila da ezagutzen dugunaren sokak hautsi eta ezagutzen ez dugun horretan murgiltzea  
Zaila da, zaila baina beharrezkoa  
Atzekoari agur esan, eta aurrera egin behar dugu, poliki poli-

ki, pausoz pauso  
Oinez nekatu, triste, oinazez  
Zaila baita, katek hautsi eta bide berriei ekitea, atzera begiratu gabe  
Azken finean, gu sortu ginen enbor beretik, sortuko baitira besteak, ala ez?

## ZINEA

Abenduaren 4an, 19.30ean Rumores y Mentiras eta 22.30ean Abel  
Abenduaren 5ean, 19.30ean Abel eta 22.30ean The Town  
Abenduaren 6an, 17.00tan Ga'Hoole haur zinema eta 19.30 eta 22.00tan Rumores y Mentiras  
Abenduaren 7an, 17.00tan Ga'Hoole haur zine saio berezia eta 19.00 eta 22.30ean Ha nacido una estrella, zine foruma  
Abenduaren 8an, 17.00tan Iratxoeren erregea, haur zinea, euskaraz eta 19.30 eta 22.00 The Town  
Abenduaren 12an, 17.00tan El diario de Greg, haur zinea eta 19.30 eta 22.00tan Los ojos de Julia  
Abenduaren 13an, 20.30ean, Los ojos de Julia, ikuslearen eguna.

## Mundu bat Tolosaldean

Kultura arteko topaketak.  
Abenduak 10-19

"Mundu bat Alegian". Abenduak 10, ostirala. La Polea antzerki taldeak (Costa Rica) "El Nica" aurkeztuko du Alegiko Kultur Etxean, 22.00tan.  
Abenduaren 10etik 18ra, "Ni ere pertsona" Sos Arrazake-



## Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazioz atutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Internet + E-Administrazioa	2010.12.13	20
Erregulazio automatikoen elementuak (hidraulika)	2010.12.13	20
UPV/ehuko Ikasketei Buruzko Jardunaldia	2010.12.14	4
Irudi Digitalen Tratamendua I eta II	2010.12.15	8
Adimen Emozionala: Harreman pertsonalen kudeaketa	2011.01.07	20
Testu editorea, kalkulu orria eta datu basea	2011.01.12	40

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia      Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA      Posta-e: info@ikastn.com  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa      Webgunea: www.ikastn.com

## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 3</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Asteazkena, 8</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	<b>Astelehena, 13</b> Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa
<b>Larunbata, 4</b> Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Osteguna, 9</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Asteartea, 14</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Igandea, 5</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Ostirala, 10</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 15</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 6</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Larunbata, 11</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Osteguna, 16</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
<b>Asteartea, 7</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Igandea, 12</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Ostirala, 17</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	Iurreamendi egoitza
Bidegoian	943 681 134	Larrialdia, Suhiltzaileak
Medikua	943 681 134	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	Ertzantza
Medikua	943 653 329	Tolosa Gasa
Irura	943 690 720	Lizartza
Osasun zentroa	943 650 931	Medikua
Tolosa	943 006 800	Orendain
Anbulatorioa, Iarriald.	943 006 800	Medikua
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Orexa
		Medikua

riaren erakusketa ikusgai. Alegiako Kultur Etxean. Ordutegia: astelehena-ostirala (18.30-20.00) eta larunbata (11.00-12.30).

"Mundu bat Tolosan". Abenduak 10, ostirala. Andeatoko musika eta instrumentuen tailerra. Tolosako Haur Liburutegian (Errota), 18.00tan. 8-14 urte bitartekoentzat.

Abenduak 11, larunbata. "El Nica" antzerkia, Costa Rica. Tolosako Leidor Aretoan, 19.30ean.

Abenduak 13, astelehena. "La marcha" filma emanaldia. Tolosako Kultur Etxean, 19.00tan.

Abenduak 16, osteguna. Munduko ipuinen kontaketa ingelesez, Tolosako Haur Liburutegian (Errota). 18.00tan. 6-10 urte bitartekoentzat.

Abenduak 17, ostirala. "Agua viva" filma emanaldia. Tolosako Kultur Etxean, 19.00tan.

Abenduak 18, larunbata. Gabonetako azoka berezian "Munduko Gozoak" Ereiteren eskutik.

"Amerikanuak". Tolosako Leidor Aretoan, 19.30ean.

Mundialitoaren Finalerdiak. Tolosako Uzturpe Kiroldegian.

Abenduak 19, igandea. Mundialitoaren finala. Tolosako Usabal kiroldegian. 11.00tan.

Mundu arteko elkar trukea. Denboraren Bankuak antolatutako Elkartrukearen Merkaturian, kafe, te edo txokolate bat hartzeko aukera. Tolosako Zerkausian, 16.00-18.00 bitartean. Haurtzaindegi zerbitzuetarako.

Abenduaren 10etik 17ra. "Emakume, etorkina eta bizilaguna" erakusketa Sos Arrazismoaren eskutik. Tolosako Kultur Etxean. 18.00-20.00.



# SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA

Errotulazioa & india  
**Vicente**  
www.rotulosvicente.com  
943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Laskibar bailara 25, 1-04 atea  
20271 Iruia (Gipuzkoa)

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak  
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886 - 943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615 - 943 671 149

## Muxutruk

### Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Eguzkitza Sagardotegiak parrillarako, sukaldarako eta zerbitzatzeko pertsona bana behar ditu. 660 654 317 (Jon)

### Etxebizitza

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sarzako prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

### Salgai

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37



### aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Ez zaizu komeni momentu honetan jarrera bortizik hartzerik, konponbidea topatu nahi baduzu, behinik behin. Diplomazia eta justizia erabiliz gero, arazoaren irtenbidea topatuko duzu.



### taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Geroaldiari begira erabakiak hartzea komeni zaizu. Berehalako etekinak nahi badituzu, ez zoaz bide onetik, kontuak nahi baino mantsoago doaz eta. Maileguren bat eskatzeko une aproposa da.



### gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Lanbideari arreta gehiago eskaini eta familiarte eta bihotz kontuak alboratu itzazu, honela jabetuko zara alor profesionalean egondako nahasteak, korapiloak eta blokeoak irudimena baino ez direla izan.



### cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Iraganeko erlazio bati bigarren aukera emateko garaia, iraganen zailtasunak egon baziren oraingoan aldeko baldintzak emango dira. Mendira joan eta ibili beharko zenuke, gainean daramazun estresa arintzeko.



### leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Bizitzak eskaintzen dizkizun poztasunak goza itzazu, diru kontuetan ondo doakizu baina momentuz ez zaitez inbertsio kontuetan sartu, aholkularitza onik ez baduzu behintzat. Zureganako konfiantza momentu onean dago.



### virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Deskantsatu eta relaxatu zaitez, energia faltan zaude eta horregatik atsedena horren garrantzitsua izango da. Komenigarria litzateke arazoetan ez sartzea, ez ezazu zure ikuspuntua kosta ala kosta gailentzera behartu.



### libra

Irailak 23-Urriak 22

Birsortzeko aukera izango duzu, zure bizitzako aro berri hau planifikatzeko aukera izango duzu. Lortu nahi duzuna imajinatu behar duzu, honela barruan daramazuna atera besterik ez da egingo. Osasuna ondo, baina bizkaraldea zaindu ezazu.



### scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Garai oparoan murgiltzera zoaz, ekonomikoki, profesionalki eta baita pertsonalki ere. Azkenaldian gertatutakoa aztertuz gero, aurrera egiteko gai izango zara.



### sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Egun hauetan bakarrik egoteko beharra izango duzu, zure etxean goxo-goxo egon eta ideia berriak bururatuko zaizkizu, egia esan etxer aldatzeko une aproposan zaude.



### capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Kontaktu egokien atean joz geroz alor profesionalean aurrera egingo duzula ezin ukatu. Kementsu zabilta eta zorte eta intuizio apur batekin energia eta irrika nahikoa izango duzu edozein tokitan egoteko, egindako lanaren ordaina jasoko duzu.



### aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Komunikazioa aberastuz gero, emaitza onak jasoko dituzu. Ikasketa edo mintegiak prestatzeko une aproposa, adimena momentu ezin hobean daukazu.



### piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Bizitzako momentu erabakigarrian aurkituko zara esturktura berriak finkatzen hasteko, ideiak eta helburuak argi izango dituzu, horri probetxua atera baino ez duzu. Ekonomian hobekuntza txikiren bat izango duzu, zuloren bat tapatzeko haina.



## PLAN RENOVE LEIHOETAN



•ALUMINIOZKO LEIHOAK

•PVC - EZKO LEIHOAK

•DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39

# Antxoni

Arropa Denda



Eguberri on!

Berdura enparantza, 4 • Tel.: 943 670 032 • Tolosa

## Celeste Tarota

Osasun, maitasun, diru  
eta negozioetan aditua


Kontsulta pertsonalak eta telefonikoak  
943 103 749 / 610 497 035

## harria gresak



25 urte zure bainu-gela janzten  
Neurrira egindako bainu-gelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466  
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200  
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com



## aldama\_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel. 943 650 375  
Faxa 943 655 206  
gtolosa@aldamatapia.com  
www.aldamatapia.com

## Zuretzako...

Lenteak + armazoia erosita,  
mō markako armazoia + kalitate  
bereko lenteak oparituko  
dizkizugu.

**AZKEN EGUNAK**

# 2X1

progresibo eta  
monofokaletan

**2**  
konbinatu

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan



# HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 <sup>EGUN</sup> behar izaten ziren gorputz bat baltzamatzeko

2,3 <sup>MILIOI</sup>

harrizko bloke erabili ziren piramide handian



6.000 €


kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltzamatzea

3.500 <sup>GAUZA</sup>

balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA  
EHORZKETAK

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)  
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

25 urte  
TOLOSAN

